

horrelakoak ginen



■ Mari Karmen Saldisek utzitako argazkia

San Juango Santiago Jaietako irudi hau pelikula zahar baten fotograma batetik aterata izan da, horregatik dauka hain kalitate txarra. Baina erakusten duen irudia zoragarria da: Santiago Plazan zezenak, barrerak jendez gainezka. Bestalde, ikusten den bezala, kioskoa zegoen lekuan torila dago.

Iraganari begirada

PASAIA ETA ATZERRIA

Pasaia portuaren bilakaerak harreman ugari sorrarazi izan ditu beste herrialde eta kultura batzuekin. Bertakoak urrunera joan izan direlako, baina baita, era berean, gure portura kanpotar ugari iritsi izan delako ere. Kanpoarekiko hartu-eman hau da, Donostiaren kasuan bezala, Pasaia ezaugarri nagusietako bat.

Portu baten inguruan, era guztietako hartu-emanak sortu ohi dira: merkataritzakoa, industrialak, arrantzarekin zerikusia dutenak, militarrek eta, nola ez, maitasunezko sentimenak ere bai, herriko jendea kanpotarrek ezkontzen baita sarritan. Eta Pasaian ere horrela izan da.

Euskal Herriatik kanpoko etorkinekin izandako harremanak etengabe aipatzen dira Pasaia buruzko datu historikoetan. Adibidez, Iruñeko elizbarrutiko artxiboan ikusi daitekeenez, XV-XVI-XVII. mendeetan makina bat eztei-auzi edo oinordekotasunari buruzko auzi gertatu ziren, kanpora joandako pasaitarren gorabeherak zirela-eta, besteak beste. **BORDAUNDI**

'Calabria' eta 'Foxe': kubatarrak etxeratzeko zain

14 zenb.

branka

Pasaia herri-aldizkaria



2001eko martxoa

GOLD VIEW KRISTAL PROGRESIBOAK MULTIOPTICASEN



URRUN



HURBIL



3 hilabeteen ordaindu
errekargurik gabe

Edozein distantziatarra ondo ikusi ahal
izango duzu

19.500
pta.-tik aurrera

MULTIOPTICAS

ERRETERIA

Esmalteria Plaza, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA



Maria de Lezo
ERRETERIA

Kolaboratzaileak

Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz eta Patxi Berdote. Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio.



5. EZ ZAITEZ
MOZTU

6-13. BARRUTIZ
BARRUTI

14. ELKARRIZKETA
Buenawista
Prolleckziom's


18. SAKONEAN
Marinel kubatarren
testigantza

20. KALE-INKESTA
Munduko zer hiru
gauza ekarriko
zenituzke Pasaia?

22. ERREPORTAJEA
Korrika badator

26. KULTUR
AGENDA

27. KRITIKAK



Joxe Mari
 San Pedroko
 tabernari
 ardo ugari
 saltzen dio
 nahi dunari
 doan jartzen
 lagunari
San Pedroko Bodegoia

harpidetza-txartela

BRANKA aldizkaria hilero dohainik zure etxeko postontzian jaso nahi baduzu, bete ezazu beheko aldean duzun harpidetza txartela, eta bidaliezaguzu behean aipatzen den helbidera.

Izen-deiturak
 Helbidea
 Herria Tel.
 Herrialdea

Bidaltzeko

ARNASA EUSKARA ELKARTEA

"BRANKA aldizkaria"

ESKALANTEGI KALEA 38, BEHEA -

20110 PASAIA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 34 10 45

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Pasaiko Udala



Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentua



t

telefono interesgarriak

UDAL ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuak:
943391187Kultura, euskara eta gazteria:
943400108Idazkaritza:
943344140Dirubilketa:
943522150/4Kontuhartzailletza:
943344157Diruzaintza:
943344153Hirigintza:
943344224Udaltzaingoa:
943400000Obrak eta zerbitzuak:
943393693Antxoko Udal Liburutegia:
943515737Trintxerpeko Udal Liburutegia:
943401053San Pedroko Udal Liburutegia:
943399348Pasaia Musikal Udal Fundazioa:
943396055

LARRIALDIAK

DYA:
943521557
Gurutze Gorria:
943511605BAILARAKO EUSKARAZKO
KOMUNIKABIDEAKLau haizetera:
943341048Orratz:
943519144Branka:
943341045Oarso Telebista:
943493818/19Oiertzun Irratia:
943493711

@

interneteko helbideak

PASAIA

Branka herri-akizkaria:

Branka @euskalnet.net

Alkartasuna Euskal Dantza Taldea:

Alkartasuna_edt.pasaia@euskalheniaznm.com

www.gipuzkoa.net/pasaia/
www.paisvasco.com/pasaia/

EUSKARA

Euskaltzaindia:

www.euskaltzaindia.net

Elhuyar:

www.elhuyar.com

UZEI:

www.uzei.com

IVAP/HAEE:

www.ivap.com

UPV/EHU

www.ehu.es

Udako Euskal Unibertsitatea

www.ueu.org

Euskal Herrian Euskaraz

http://www.geocities.com/capitol-
Hill/7012/Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta
interpreteen elkarteak:

www.eizie.org

KOMUNIKABIDEAK

Argia:

www.argia.com

Euskaldunon Egunkaria:

www.egunkaria.com

EITB:

www.eitb.com

BILATZAILEAK

www.jalgi.com

www.aurki.com

www.kaixo.com

INSTITUZIOAK

Eusko Jaurlaritzak

http://euskadi.net

www.ej-gv.es

+

Goardiako farmaziak

Apirilaren 6an: Ignacio Ormaza-
bal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo.

Telefonoa: 943 510781

Apirilaren 12an: M^aTeresa Vega
Gure Zumardia 27. Pasai Antxo.

Tel.: 943 512349

Apirilaren 14an: Ignacio Ormaza-
bal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo.

Telefonoa: 943 510781

Apirilaren 25ean: Ignacio Ormaza-
bal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo.


Telefonoa: 943 510781

Apirilaren 26an: Ana Isabel San-
cho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo.

Tel.: 943510545

Apirilaren 28an: M^aLourdes Marti-
nez Lagos. San Juan kalea 22. Do-
nibane. Tel.: 943514645Apirilaren 30ean: M^aTeresa Vega
Gure Zumardia 27. Pasai Antxo.

Tel.: 943 512349



besteak

JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA
EZKONTZAKMartxoan, 8 pasaitar jaio dira, 11
pertsona hil dira, eta 3 ezkontza
ospatu dira.

ALTZARIAK JASOTZEKO EGUNAK

Trintxerpen, apirilaren 2an
San Pedron, apirilaren 3an
Antxon, apirilaren 4ean
Donibanen, apirilaren 5ean

ez zaitez moztu

s@re@n
Unai Martin

Adsl, Rdsi, www, @, hauek guztiak gaur egun komunikabide, kalean nahiz ikastetxetan erabiltzen diren hitzak dira. Zer erlazio dute akronimo hauek guztiak beraien artean? Erantzuna: INTERNET. Baina zer da internet? Argi dago Internet ordenagailuz osaturiko munduko sarerik handiena dela, ikaragarritzko informazioa mugitzen duelarik.

Baina zer dago informazio sare honen atzean? Hasieran helburua argi zegoen, sareak guztiona izan beharko luke, informazioaren domeinu publikoa bultzatzea, adierazpen askatasunean oinarrituz.

Internet-ekin iraultza dator, baina ez ordea hasieran bilatzen zen utopia. Sareak irtenbide berri eta zabalak eskaintzen dizkie gizarte elementu guztiei, enpresa, herritar zein gobernuei. Neurrigabeko hazkuntza dela eta, sarea gaur egungo gizartearen ispilu bilakatzen ari da, bizitzaren alderdi gazi eta gozoak irudikatzen baititu.

'Sarean' txoko honetatik, hilabetero, zibermundu konplexu honetan murgilduko gara, hirugarren iraultza unibertsal hau pixka bat gehiago ulertzeko saioan.

komikia

Joseba Antxustegietxarte



br-14

4

DENETATIK

br-14

5

ZURE TXOKOA

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker
gracias a ti

LAB
langile abertzaleen batzordeak

SINDIKATOAK
Euskadi Etorbidea z/g
Azoka 1. solairua 20110 TRINTXERPE
Tel.: 943 39 68 11

URTXINTXA BULL
URTXINTXA BULL, S.A.

**Gipuzkoako English Mark
Darts operadoreak**

Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel.: 518527

donibane

Bretainiatik Galiziara larruzko ontzietan

Larruzko lau ontzik, Erdi Aroan monje zeltar nabigatzaileek erabilitakoen antzera eraikitakoak, datorren udan Bretainiako Douarnenez herritik Pontevedrara dauden 2000 kilometroak zeharkatuko dituzte. Hauetako bat Pasaiaiko Albaolak, Euskal Herriko itsas ondarea berreskuratzeko asmoarekin sortutako elkarteak, eraikiko du. Zeharkaldiko eskala ofizial bakarra Pasaian izango da, eta bertan, galesek, irlandarrek, bretoiek eta euskaldunek osatutako tripulazioen jatorri kulturantza aprobetxatuz, 25.urteurrena ospatzen duen Pasaia-Lezo Lizeoak ekintza desberdinez osatutako egitarau zabala prestatuko du, Hizkuntza Gutxituen Europar Urtearen inguruan.

Fedeak bultzatuta eta nautikako ezaguera handiak lagun zituztelarik, monje zeltarrek, San Brendano ospetsuak adibidez, IV. eta VIII. mendeen artean, itsasoko historian izan den epopeiarik harri garrienetako bat burutu zuten; larruzko ontziak erabiliz Europan zehar nabigatu zuten, eta litekeena da Ameriketaraino ere iritsiak izatea.

Zeharkaldi hauekin liluraturik, elkarte bretoi, irlandar, gales eta galiziarrek urteetan lanean dihardute itsas ondare itzel hau berreskuratu nahian. Horretarako, currach izeneko larruzko ontzi hauen erreplikak eraiki dituzte, eta baita monjeek egindako zeharkaldi haietako batzuk egiteko erabili ere.

Elkarte hauetako ordezkariak Pasaian izan dira, uztaila eta abuztu bitartean burutuko den "Galiziarantz" proiektua aurkezteko asmoz. Proiektu honetan euskaldunek eta, noski,



galiziarrek ere bai, parte hartuko dute.

Albaola elkarteko kideek proiektu hau joan den udan ezagutu zuten, Brest eta Douarnenez-ek egindako ontzi tradizionalen topagunean. 2000 ontzitik gora bildu ziren, haien artean Xabier Agote ontzigileak eraikitako "Ameriketatik" XIX. mendeko trainerua, Albaola elkartearen izenean. Bertan

ezagutu zuten Douarnenez-Pontevedra currach-ean egiteko ideia eta Euskal Herriko porturen batean erdi-bideko eskala egiteko asmoa. Berehala proposatu zieten Albaolako kideek portu hori Pasaia izatea.

Haiek begi onez ikusi zuten ideia eta Pasaia Galiziara berarekin joateko proposamena egin zieten. Horretarako, noski, currach berri bat eraiki be-

harko dute Pasaian, eta laster Bretainiara bisita egingo dute larrua josteko teknika ikasteko asmoz.

Honela, lau currach izango dira zeharkaldian parte hartuko dutenak. Hemen egingo denak 7 metroko eslora eta bospasei pertsonentzako edukiera izango du.

Pasaian uztailaren bukaeran egingo duten lau eguneko eskalak, ekintza desberdinez osatutako egitarau zabala egiteko aukera emango du. Pasaia-Lezo Lizeoak, 25.urteurrena ospatzen ari den honetan, bretoi, irlandar, gales eta galiziarren presentzia aprobetxatuz, Hizkuntza Gutxituen Europar Urtearen inguruan zenbait ekitaldi antolatuko ditu.

Pasaiaiko festa Pontevedran errepikatuko da; bertako itsasadarrean Federación Galega pola Cultura Marítimak egingo dio harrera currach-ez osatutako espedizioari.

Obrak Meipiko aldean

Udalak hurrengo bi obrak egiteko asmoa du:

-Lezobide kaleko urbanizazioa burutu da. Herriaren sarrean biribilgune bat egingo da herrira eta portura doan trafikoa bideratzeko. Honekin bate-



ra, Meipiko inguru guztia berriro urbanizatuko da. Obra honen aurrekontua 46.396.929 pezetakoa da.

-Lizeora doan bidea eta Bordaborda kalea lotuko dira (lehengo bide zaharraren gainetik). Obra honen aurrekontua 7.552.75 pezetakoa da.

Obra egiteko aukeratutako enpresa edo enpresek 6 hilabete izango dituzte bi obra hauek burutzeko.

Koxtapeko zortzikoa

Dagokeneko aurtengo arraunketa mugikorraren denboraldia martxan da, eta ondorioz Koxtapeko arraunlariak buru-belarri murgildurik dabilta entrenatzen. Aurtengo arraunketa

mugikorreko senior mailan 12 arraunlari daude, eta hortik zortziko bat eta "lau-sin" (4-) bat aterako dira.

Zortzikoari dagokionez, Koxtapekoek aurtun apustu handia egin dute, eta hori dela-eta, ontzi berri bat erosi dute, Enpacher bat (alemana) hain zuzen ere. Beraien helburua ekainean Sevillan burutuko den Espainiako txapelketa irabaztea da, baina horretarako beste aurkari irabazi beharko diete. Denboraldi honetan, Gipuzkoa aldeko aurkari gutxiago edukiko dituzte, izan ere, arraun-elkarte gehienek helburua traineruen ligarako sailkapeneko estropada ondo prestatzea izango denez, ez dute zortzikorik aterako.

Ea zorte ona duten eta emaitza onak lortzen dituzten.



trintxerpe

Zorionak boveda!

Inauterietako ajea gainera kendu ezinean dabilta oraindik Boveda Gazte Elkarteko lagunak. Martxoaren azken asteburuan oraindik, Asterix eta Obelix ugari aritu dira dantzan Biarritzeko inauterian.



Ugari bai, baina zenbat haur, gazte eta guraso izan dira aurten Boveda-ko konpartsa osatu dutenak? 180 inguru. Askotxo ezta? Eta ez hori bakarrik, kontuan hartu behar baita dantzan aritu direnez gain, azken hilabeteetan 20 bat lagun izan direla Donostian, Trintxerpen eta Biarritzen ikusi ahal izan duguna prestatzen aritu direnak. Lan mordo bat egin dute beraz.

Baina lan handia egiten denean eta egingakoa norbaitek aintzat hartzen duenean, egindakoak merezi duelaz ohartzen zara. Halaxe uste dute Bovedakoek. Eta aurten be-

raien lanak merezi izan duela argi daukate. *Jendeak oso pozik amaitu du, Donostiako inauterietako sari nagusia irabaztea gauza handia da guretzat.* Doakie hemendik ere, Brankaren partez ZORIONAK handi bat.

Bovedaren lana ordea ez da inauterietan amaitzen. Asialdi taldean astero egiten duten lanari aurten, 35. urteurreneko ospakizuna gehitu zaio. Urteurren hori modu oso berezian ospatu nahiak Disneyland Parisera bidai bat antolatzea animatu ditu. Bidaia maiatzeko zubian egingo dugu, baina dagoeneko leku guztiak beteta daude. 127 lagun joango gara Parisera. Bidaia hasera ba-



tean irekia bazen ere lehentasuna Boveda-ko lagunak zuten, eta hauexek (eta guraso batzuk) izan dira bidairako leku guztiak bete dituztenak. Orain bidaia diruz laguntzeko atera ditugun errifak saltzen ari dira haur eta gazteak, bakoitzak mordo bat saldu behar ditu bidaia merkeago egiteko.

Maiatzaren lehenaren zubian bidaia egin ondorenerako ere eskuak bete lan daukate. Alde batetik aurten Trintxerpen izango den Eskolatik Kalera jaian parte hartuko dute maiatzaren 12an, eta beranduago urtero egiten duten Kanpamenduko Jaia izango da. Azken urteetan bazkaria egiten bagenuen ere aurten agian afaria izango da, oraindik ez dugu gauzak prestatzeko tartarik hartu.

Gaur egun Bovedan dauden begiraleak erritmo horretan lanean ikustea izango da, gure ustez, proiektu hura orain 35 urte martxan jarri zutenak hasetzeko modurik onena. Guretzako ere haur eta gazteengatik lan egiteko hartua duten konpromiso hori betetzen ari direla ikustea pozgarria da. Horregatik, mila esker eta zorionak Boveda!

Etorkinen eskubideen aldeko martxa arrakastatsua

Mila pertsona inguru bildu ziren, pasa den martxoaren 18rako hainbat erakunde sozial

sindikal zein nazioarte mailakoek deituriko ibilaldira. Etorkinen aldeko martxa, Trintxerpeko azokaren aldamenetik abiatu zen eguerdiko 12:00etan, eta ordubete beranduago amaitu zen Donostiako bulebarrean, musika afrikarraz lagunduta. Ekitaldiaren amaieran, eta parodia bat medio, egoera honen aurrean zerbait egiteko beharraz ohartarazi zuten.




"Paperak eta eskubideak etorkin guztientzat" lelopean abiatu ziren bertaratutako guztiak, gaur egun estatuak daraman inmigrazio-politika zein atzeritarren legea salatuz. Era berean, erakunde antolatzaileek hainbat eskaera egin zituzten, hala nola, paperekin arazoak dituzten etorkinen erregularizazioa, lan eskaintzak dituzten etorkin guztientzako lanbaimenak, eta erresidentzia-bisaren bila jaio-terrirra itzuli behar ez izatea. Azkenik, polizi jazarpenaren eta gehiegikeria administrati- boekin amaitzea eskatu zuten, bide batez, etorkinen gizarteratzearen aldeko aldarrika- pena sustatzearen beharra azpimarratuz.

san pedro

Inauteriari zaporea emateko: gatzaga

Pabloenean dute elkarte, eta hainbat ekintzatan parte hartu arren (jai-batzordea, bizilagun-elkarte...), gehienek, Gatzaga, inauteriekin lotzen dute. 1984tik ari da elkarte hau inauterietan bere dantza eta musikarekin jendea eta kaleak animatzen. Inauteriak pasa dira eta ia ahaztu ditugu, baina jarraian ikusi ahal izango dugu, kaleak girotu eta musikaz betetzeko atzean nolako prestaketa dagoen.

Mozorroa, urte batetik bestera pentsatzen dute, eta dantza egin nahi duenak, urrian garbi eduki beharko du zer den martxo aldera egin nahi duena,



garai honetan -urrian, alegia- irekitzen baitira zerrendak eta hasten entseguak.

Dantzei dagokienez, auzoko neska "yeye"ek asmatzen dituzte; oso ondo gainera, beraiek arduratzen baitira musika, dantza eta entseguak. Ana Mari eta Aitziber ditugu hauek, baita asko laguntzen dieten "konpartsera" taldeak ere. Behin dantzak-eta pentsatuta, talde hauen parte-hartzea oso garrantzitsua da.

Zuzendaritzakoen lana, azpiegitura guztia lortzea da; hala nola, musika ekipoa, karroza, generadoreak, karroza eramateko ibilgailua. Baita trajeen diseinua eta oihalen aukeraketa ere.

Beraz, garbi dago bakoitzak bere funtzioa ondo zehaztua duela. Baina desfilatzeko unea iristerakoan, berriro ere antolatzen da. Karroza, normalean, Lezon izaten da; horregatik, bi ordu lehenago honen bila

joan behar izaten dira, zeregin honetan elkarte "arren" laguntza izaten dutelarik. Honela, batzuk musika ekipoa muntatzen ari diren bitartean, beste batzuk elkartean gertatzen dira ogitarteak egiten. Beharrezkoa da desfilea bukatutakoan indarrak berritzea, dantzan ari diren bitartean, ura eta gozoki batzuk baino ez baitituzte jaten.

Asteburu gogorrak izaten dira inauterietakoak konpartsari hauen tzat. Bai, asteburuak esan beharra dago, gure eskualdean honetarako ere bereziak baikara. Larunbat arratsaldean, igande goiz eta arratsaldean, eta astelehen arratsaldean, Donostian dantzatzen dute. Eta hurrengo asteburuan, larunbat eta igande arratsaldean Trintxerpen, eta igande goizean Altzan.

Aurtengoak pasatu dira dagoneko, baina Gatzagatik esan diguten bezala, beraiek oso ondo pasatzen dute antolatzen eta dantza egiten. Bide batez, gure orrialdeak aprobetxatuz, jendea parte hartzera animatzen dute; eta, batez ere, hainbat arrazoiengatik dantza egin ezin dutenei, deialdi berezia egin nahi diete. Izan ere, inauteria, ez da konpartsakoen jantzi eta dantzak ikustea soilik; inauteria, jende guztia, giroa, moztortzea... da.

Heras ile-apain-

degiak pertsia-nak jaitsi ditu

Luis Heras erretiratu egin da, eta berarekin, San Pedroko gizonezkoen ile-apaindegi eta korporazio estetiko bakarra.

Gasteiztik hona soldadutza egitera etorritako Luisen aitak, 1939an hartu zuen gerra aurretik "Salon de Peluquería" izena zeraman bizartegi zaharra. Hamabi urterekin hasi zen Luis gaztea, bere anaia Jose Marirekin batera, herrira iristen ziren marinelen bizarrak xaboiez estaltzen. Harrezkero, aitaren lekukoari jarraituz, eta inoiz baxarik hartu gabe, bertan pasatu ditu azken berrogeita hamar urteak, herriko gehienen buruak zaintzen eta apaintzen.

Garai batean, bi bizartegi zeuden herrian: Herasena bata, eta Fermin Iparragirrek frontoiaren parean zuen bestea. Guztira zazpi bizargin ibiltzen ziren herriko gizonezkoen eta kanpoko marinelen bizarrak eta ileak moztzen. Izan ere, denbora hartan, gizonezkoek astean behin bizarra kendu eta hamabostean behin lepoa "arreglatzen" zuten.

Ordutik hona, makina bat xelebrekeria eta sentsazio aromatiko pasatu izan dira bizartegi polit honetatik: Aita Manuelen atzetik aurrerako orrazkera berezia; marinelen fardeletatik ateratzen ziren txangurro eta legatzek, edota "Estefania" eleberrien elkartrukeek sortzen zuten gi-



ro burugabea.

Baina bukatu da; bukatu dira zonaldeko gizonezkoen ile-apaindegi guztiak. Luisi pena ematen dio, lana soberan dagoela ikusita, tradizioari inork jarraitu ez izana. Berak dioen bezala, gaur egungo edozein gaztek bizartegi hau hartu eta "finolis" era- jarriko balu, hilerio hirurehun mila pezetatik gora irabaztea posible izango luke.

Ea norbait munduko erregea izatera animatzen den!

Old rockers



Beste bi hauek ondo bete zuten Gatzagakoen eskaera. Badira urte batzuk herrira ihauteriak iristerakoan ezer berezirik egiten ez dela. Azkenaldian beti berdina da, arratsalde osoan zehar edozein ostirala bezala, eta gaueko 10ak inguru iritsita moztororenbat edo beste baina geroz eta gutxiago. Aurtengoan, pailazo, mediku, majorette, mantel eta gainontzeko moztoroen artean, argazkikoa aukeratu dugu Brankako San

Pedroko korrespontsaliakook. Zein moztorro den? Horrek axola al dio. Norberak bere irudimenarekin joka dezala.

Bi pertsonai hauek erakusten digute ez dela askoren beharrik moztorro polit, erreal eta inpaktantea lortzeko. Argazkian baino "ederragoak" zeuden ihauteri gauean, eta hemen nabaritzen ez diren detailtxo ugari zituzten bistan. Gorputzeko toki estrategiko batzuetan "gizon gizonen" dituzten protuberantziak ahaztu gabe noski.

Guzti honengatik eta gau osoan eskeinitako errepresentazioagatik, San Pedroko moztorro saria J-Brentzat.

Kale izendegi berriak hiru alegazio jaso ditu



Pasa den otsailaren 21ean, herriko alkate ordetzan aurkeztu eta eztabaidatu ziren, Udalak burututako kale izendegi proposamen berriari San Pedroko biztanleek egindako alegazioak.

Hiru izan ziren hauek. Alde batetik, "Tirri Tarren plaza" mantentzearen aldeko alegazioaren kasuan, proposatzaileen arabera, "Tirri Tarren" izena lekuan lekuko toponimoa izateaz gain (bertako untxiola edo portu baten izena), proposatzen den "Pintorekoa" baino askoz ere zaharragoa da. Eta gainera, proposatzaileen ustez, gaur egungo Tirri Tarra fanfarea herriko erreferente soziokultural garbia izateak, are gehiago indartzen du alegazio hau.

Gobernu taldearen ustetan, ez dago

bateren garbi toponimo honen antzinatasuna eta are gutxiago bere existentzia. Eta fanfarrearen onespren soziokulturalarekin guztiz ados egon arren, onespren honetarako beste lekuren bat bilatzea proposatzen du, beti ere, herriko arau subsidiarioetan plaza honen desagerpena aurreikusten dela kontutan harturik.

Bigarren alegazioan, Luis Morales Oliver eta Passaman alargunaren izenek kale aldaketarekin galduko zuten onspen publiko eta ofiziala planteatu zen.

Lehenengoaren kasuan, gobernu taldearen ustez, proposatzen den "Iturritxoko plaza" bertako lehen mailako toponimoa da, eta ontzat ematen dute planteatzen den aldaketa, Morales Oliver-ekiko onspena herriko liburutegiaren izenak mantenduko duela adieraziz.

Passaman alargunaren kale aldaketa izan zen jendearen arreta gehien

erakarri zuen gaia. Aldaketa honek (Salbioko kalea) herrian sortu dituen kontrako eritziak direla eta, gobernu taldea kalea mantentzearen alde azaldu zen, izenaren baitan aldaketa posible bat planteatzen zuelarik: senarraren izena eraman beharrean, andrea- ren berezko izena

ezartzea, hau da: Maria Etxeberría kalea. Era berean, Salbio toponimoa galdu ez dadin, Frontoiko Zumardiari Salbioko Zumardia deitzea proposatu zuen gobernu taldeak.

Hirugarren alegazioan, Urrestarazu anaiak eta Ricardo Arrillaga kaleen izenak mantentzea planteatzen zen. Alde batetik, proposatzen diren Fuertetxiki eta Salinasborda izenak tokian tokiko toponimoak ez direlako. Eta bestetik, gerra zibilean hildako pasaitar hauen izenak, guda artan hil ziren guztien oroigarri eta lekuko gisa gera zitezkeelako.

Bilera honetan planteatutako ausarketak hurrengo Udala Batzarrera eramango dira, bertan eztabaidatu eta erabaki zehatzak hartu ahal izateko.

antxo

Azokaren lanen inguruan solasean



Laldundiarenak diren lan hauek —eta ez udalarenak, askok uste duten bezala, kezka betetzen ditu Antxoko bizilagunak. Ez da leku honetan lurra altxatzen duten lehendabiziko aldia; duela hilabete batzuk, hodi bat sartu zuten toki bereberetan, eta orain egiten ari diren lanetan, bitan puskatu dute hodi hori, ura barra-barra ateratzen ikusi dugularik. Hodia sartzeko obra bat egin, eta orain dena berriz apurtu... Diru, material eta denbora galtze bat dela garbi ikusten dugu denok. Azoka inguruan beste bi lan daude burutzeko; bizilagunen usteetan, hobe izango litzateke lan guztiak batera

egitea banaka egin beharrean, jendea buruhausteak ekiditeko. Obra hau ez dago bat ere ondo egokituta; inguruan jarrita dauden hesiak haize kolpe batek bota ditzake, duela egun batzuk gertatu zen bezala, ez baitaude behar bezala finkatuta. Az-

kenik, langileen esanetan, uztaile arte dute denbora lana bukatzeko. Ez ditzala zezenak harrrapa!

C.D. Pasajesen etorkizuna kolokan al dago?

Jakin badakigu, Pasaiako sahesbi-dea arrazoi egingo diren errepidearen eraiketak direla eta, Molinako futbol zelaia botako dutela 2002 urteko ekainean. Ez dakiguna da non eta noiz edukiko dugun antxotarrak ditxosozko futbol zelai berria. Egun hauetan C.D. Pasajesek bilera ezberdinak izan ditu bai Udalarekin eta Aldundiarekin, bileren gaia noski futbol zelai berriaren kokagunea. Mahai gainean aukera ezberdinak plazaratu ziren, baina alde guztien

interesak ez ziren asetu, beraz ez zuten erabaki irmorik lortu.

Argi dagoena da futbol zelaia egin arte, C.D. Pasajesek bereak ez diren instalazioak erabili beharko dituela, honek antxoko futbol taldearentzat kalte ekonomikoak ekar ditzake. Gainera, gaztetxoek beren herri-rik kanpo joan beharko dira entrenatzera, eta ikusleak ere beraien taldea animatzera herri-rik kanpo joan beharko lirateke.

Printzipioz badirudi Don Bosco ikastetxea erabiliko duela C.D. Pasajesek, horretarako bertan dagoen futbol zelaia aldatzeko jasan beharko ditu (haunditu, belar artifiziala, aldagelak...).

Gai guzti hauek gehiago zehazteko auzian dauden aldeak, hurrengo hilabeterako geratu dira hitzegiteko, eta gu hor egongo gara zuei guztia argitzeko.

San Markos kaleko parkearen proiektuaren inguruan

Antxoko barrutiak datorren hilabeteetan jasango duen eraldaketaren

barruan, Manuel Azurmendi eta San Markos kaleen inguruan egingo den parkeak zeresanik ematen hasi da dagoeneko. Izan ere, kalteturiko bizilagun zein enpresek haien kezka azaldu dute Aldundiaren jokabidea dela eta. Azken astetan desjabetze edo espropiazio prozesuak hasi dira.

Bertakoak, parkea eta desjabetzaren aldekoak dira; hala ere, prentsan agertu denez 1000 miloi pezetako aurrekontua duen parke bat egiteko, indemnitazioak oso baxuak direla salatzen dute (3.800.000 pezeta 80m2ko etxebizitza batengatik), bai jabe zein alokairuan bizi direnentzat (hauen kasuan 100 mila pezeta lekualdatzea egiteko). Enpresen kasuan ere, diru laguntzak ez lirateke lokalentzat izango, lekualdatzerako baizik; hortaz, hainbat enpresa txiki desagertzeko arriskuan daudela salatzen dute. Bertako bizilagun, enpresa eta garajeen jabeak biltzen hasi dira jadanik ekintzak bateratzeko.

Bertso-afari paregabea

Bazterrak ondo astindu zituzten, bai, Jon Maiak, Egañak eta Peñaga-



rikanok Arnasa Euskara Elkartaren eskutik martxoaren 9an egin zen bertso-afarian. Afariari hasiera Txirritaren 'huelgari buruzko' koplekin hasera eman zitzaion, eta ondoren hortxe hasi ziren patxaran eta puru artean inguruan zeudenen kontura bertsoan: habanerak, mexikar doinuak eta hemengo betiko bertso

doinuekin osatu zituzten bertsoak, eta nola ez, katxondeo eta farrik ez zen falta izan aurtengoan ere.

Hitzaldia

Hinbat antxotar bildu ziren Arnaldo Otegi EHko buruak eskaini zuen 'Burujabetza da bakea' lelopean antolatua zegoen hitzaldian. Bertara bildutakoek, gainera, beren kezka eta zalantzak azaltzeko aukera izan zuten.



Aparkalekuen arazoa

Antxo betidanik izan da trafiko handiko barrutia, eta egun aparkatzeko ia zailtasun handienak dituena. Lehen zaila bazen, orain ia ezinezkoa da kaleetan aparkatzea. Usozko zelaiguneak itenbidea eman nahi dio arazo honi, baina kaleetan lekua topatzea abentura bat bada, zuloz beteriko zelaigune honetan autoa uztea, erabateko arriskua. Eguraldi ona egiten duenean, "errusiar mendia" dirudi, eguraldi txarra egiten duenean, putzu pilaz betetzen da, eta, hauen gainetik pasatzera beharturik, geroz eta gehiago hondoratzen dira autoak.

Muebles Altzariak RUIZTEGUI, s.a.

MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA

Nafarroa hiribidea, 15
Tfnak.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTZO

PITXI TXULO JATETXEA-TABERNA

EGUNEKO MENUAK

ETA BARRA ZERBITZUA

Eskalanategi, 118
Tfn: 943 520 770

Molinak Auzoa
PASAI ANTZO

AMio Taberna

Gure Zumardia, 27-20110 Pasai (Gipuzkoa)

Leunda Taberna



☐ Eguneroko menuak
☐ Asteburuetakoko afariak

Oarso Kalea 8, 20110 Pasai Antxo
Tlf. 943.51.54.14

Bar Gaiherri


C/ Eskalanategi, 36 • Tlf. 943 51 00 19
PASAI ANTZO

MIMOS TABERNA



tel.: 943 51 85 27
Pasai Antxo

Buenawista prolleckziom's: "Musikari langileak gara"



TESTUA OLATZ MITXELENA ARGAZKIAK IÑAKI BERRIO

Buenavistako alkateordetza izan zen bere garaian. Gerora, aldiz, zahar itxurako etxe horren barruan, gazte ugari biltzen hasiko ziren. Han, Buenewistan, punk rockaren harrobian, musika-akordeak mailu eta zizelaren soinuekin uztartu izan dira betidanik. Izan ere, kale-musikari hauek, hamaika lan atera behar izan dituzte aurrera etxeak zutik iraun dezan. Hori, baina, sekula ez da izan oztopo, sormenaz betetako proiektu musikal ugari bertan jaiotzeko.



«
Ez dago panoramarik. Jendeak
proiektuak ditu baina
panoramarik ez dago.
»



Zein urtetan jaio zen Buenawista Prolleckziom's, elkarte moduan?

Hasiera batean, Buenavistako Gazte Asanbladaren lokala zen hau. Pixkanaka, musika taldeak sartzen hasi ziren. Taldeetako jendea, musika taldeentzako gauzetan pentsatzen hasi zen, pixkanaka gazte elkarte baten ohiko jarduerak alde batera utziz. Horrela, 1988an, Buenawista prolleckzion's elkarte gisa sortzen da.

Azaldu zuen funtzionatzeko era.

Gu proiektu musikal bat duen elkarte bat gara. Bazkideok osatzen dugu elkarte, eta bazkideak dira erabakitzen dutenak elkartearen bidea zein izan behar den. Talde bakoitzak bere musika-tresnak ditu eta bere kaxara lan egiten du. Entseatzeko 17 lokal ditugu, taldeek konpartitzen dituztenak. Funtsean, elkarteak egiten dena zera da; kontzertuak dinamizatu eta gure musika taldeak bultzatu.



Punk Rockaren harrobi gisa ezaguna da Buenavista. Musika-estilo hori hemen landu duten taldeen artean zeintzuk aipatuko zenituzkete?

Nuevo Catecismo Católico, Señor No, Discípulos de Dionisos, Barrakos, The astrozombies, Jauko Barik...

Hala ere, beste musika-estiloek ere badute lekua zuen lokaletan...

Bai. Pop estilotik hasi eta muturreko soinueteraino: musika elektronikoa, Techno...

Hamaika kontzertu egin izan dira hemen. Zeintzuk uste duzu gogoratzen dituela jendeak oraindik ere?

Zalantzarik gabe, gehien gogoratzen dena Sociedad Alkoholika taldearena da. Hemen egindako azkenekoa.

Harrezkero, Mogambo aretoa kudeatzen hasi zineten, ezta?

Bai. Mogambok berezko funtzionamendua du. Egun, Trintxerpeko gazte batzuk daramate Mogamboko martxa eta beraien zeregina kontzertuen programazioa da.



Zein taldek entseatzen dute hemen gaur egun? Indarrez al datoz belaunaldi berriak?

Nuevo Catecismo Católico, Señor No, Kebras, Discípulos de Dionisos, Jauko Barik, Sabor Ácido, Smoib, André, mdo, tzesne, teen dogs, nocturbulux, bad f-line, Cruento, The astrozombies. Esan daiteke lekukotza badagoela, baina, batez ere estiloen aldetik.

Elkarte bat osatzen duzuen heinean, helburu zehatz batzuk lortzera bideratutako urteroko programazioa lantzen duzue. Zeintzuk dira Buenawista Prolleckziom's elkarteak dituen epe motz, ertain eta luzerako helburuak?

Musikari langileak gara, eta betidanik aritu gara lanean, lokalak ahalik eta baldintza egokienetan iraun zezan. Kale-musikariak gara; musika da gure hobbia, eta gure ogibideak bestelakoak. Gure helburu nagusia orain, lokalaren egoera kaxkarrak ekarri digun zama gainetik kentzea da.

Bestela, gure azkeneko apustua web orrialdea egitea izan da (www.buenawista.com). Talde bakoitzak sarean bere ordezkaritza izatea nahi dugu: entzuteko materialarekin, harremanak erraztuz, promozioa lantzen, eta kontzertuak programatzen dituzten lekuetara materiala bidaliz.

Azkenik, gure asmoa diskoetxe bat sortzea da.

Kritikoeek esan dute, musikaren panorama independentean garrantzizkoak diren taldeak pasa direla Buenavistatik. Zein da zuen iritzia musikaren egoeraz egun eta hemen?

Ez dago panoramarik. Jendeak proiektuak ditu baina panoramarik ez dago.

Kubara bueltatzeko zain



Calabria eta Foxe. Aspalditik, Pasaiko kaiaren inguruetan itsasontzi-izen famatuenetarikoak. Calabria itsasontzia, pasa den urteko maiatzean iritsi zen Pasaiara. Foxe, berriz, urrian. Ordutik, hortxe geldirik daude, eta barruan, itsasgizon bakoitzaren erresistentzia-istorio oso bat.

Hilabete asko pasa dira Calabria eta Foxe itsasontziak Pasaian porturatu zirenetik. Hasieran, 16 tripulaztaile zeuden barruan. Egun, aldiz, 6 baino ez dira gelditzen. Izan ere, benetan gorrak da tripulaztaile hauek jasaten ari diren kalbarioa, La Habana-tik lanera irten zirenetik. Beren kontratuak aspalditxotik daude iraungita, eta abuztua ezker, ez dute soldatarik jaso.

Branka aldizkariko talde bat, eguerdi aldera hurbildu ginen Calabria eta Foxe itsasontziak. Harrera ezin beroago bat egin ziguten bertan, eta 5 tripulaztaileekin hitz egiteko aukera izan genuen: Roberto Castillo, Foxe itsasontziaren kapitaina, Antonio Camejo, Foxeko sukaldaria, Llaser Quintanilla, Foxeko lemazaina, Bartolo Mas, Foxeko makinaren burua, eta Marino Madan, Calabria itsasontziko lehen ofiziala. Azken honek eman zigun beraien egoeraren berri.

Calabria eta Foxe, Naviera Peninsular izeneko enpresako itsasontziak ziren, Bergé izeneko enpresak Naviera Peninsular erosi zuen arte. Marino Madanek azaldu zigunez, gerora, bi enpresa hauetako akziodunen artean auzi bat piztu zen, eta ondorioz, urriaren erdialdera, Naviera Peninsular izeneko enpresaren porrota etorri zen; eta horrekin batera, baita ordainketen eten-dura ere. Azkenik, aurtengo otsailean, esku-hartze judizialaren beharra dagoela erabakitzen da.

Bien bitartean, tripulaztaileek bertan diraute,

soldatarik gabe, eta etxera bueltatzeko zain. Azpimarratu behar da, hauek ez direla auzi honek kaltetu dituen bakarrak. Bilbon, beste bi itsasontzi daude egoera berean, Valentzian beste bat eta Cadizen azkeneko bat. Orotara, 38 itsasgizon inguru. Bartolo Masek azaldu zigunez, Komenientziako banderak dituzten itsasontzien artean, maiz gerta-

tzen da hau.


Egunerokotasuna, luzea eta zaila suertatzen da kubatar hauentzat. Beraien betebeharrekin aurrera egin dute egunez egun, eta, arazo ugari izan dituzten arren, esker onez azaldu zaizkigu

behin eta berriz, inguruetakoen jendeak egin dien harrerarengatik. "Egunero azaltzen da hemendik gure egoera ulertzen duen pertsonaren bat, eta horiek izan dira gure sostengurako bastioiak" dio Marino Madanek.

Bi dira kubatar hauen aldarrikapen nagusiak: zor dizkieten soldatak eta etxera itzultzeko txartelak

ordaintzea. Igaro dutena igarota, ez dute baikor azaltzeko inongo motiborik. Hala ere, esku-hartze judiziala dela eta, laster etxera itzuli eta zor dietena kobratzea espero dute. "Guk ez dugu ezer txarrik egin. Kontratu batekin etorri ginen

hona eta orain gure eskubideen defentsan ari gara" dio Marinok. Beraien egoeraren arduradunei mezu bat ere bidali nahi izan zieten: "konponbide bat bilatzeko garaian, azkarra goak izan daitezela. Kubatarrek gara, eta ez gaude amore emateko prest".



Munduko zer hiru gauza ekarriko zenituzke Pasaiara?

br-14

20

KALE-INKESTA



1 Rebea Karrassedo.
25 urte. Irakaslea.

Antxoko jeneralera boulevard polit bat. Polikiroldegia San Pedro eta Trintxerpe erdian. Itsas museoa Donibanen.

2 Joxe Andres Laboa.
32 urte. Mekanikoa.

Nik kai deportibo bat ekarriko nuke. Etxebizitza subentzionatuak eta orokorrean azpiegitura gehiago Pasaia-
rentzat.

3 Gema Ces.
41 urte. Irakaslea.

Indiatik, pertsonarekiko beraiek daukaten errespetua. Karibetik, lehen hementen genuen ur garbitasuna. Afrikako basamortuetatik etxebizitza gehiago egiteko espazioa.

4 Joseba Ouvia.
34 urte. Telekomunikazioetako langilea.

Haur gehiago, oiha bat eta industrialde bat.

5 Amaia Goñi.
28 urte. Zerbitzaria.

Hondartza bat, bide gorri bat eta parke handi eta berde bat

6 Patxi Torrea.
33 urte. Lorezaina.

20.000 kanpotar, martxa edo odola nahasteko. Egiptoko piramideak, herriko errotonda berrian jartzeko. Orain dela 100 urteko badiako ur garden, garbi eta urdina.

7 M^a Carmen Puy.
57 urte. Saltzailea.

Etxebizitzak egin beharko lirateke herrian, PYSBE-ko alde horretan. Plaza ere zerbaitekin txukundu beharko litzake, (eserlekuak jarri-edo...). Puntetako ibilbidea ere konpondu egin behar da.

8 Alberto Ferreres.
31 urte. Langile autonomoa.

Erroman Euskadirekiko dagoen elkartasun sentimendua ekarriko nuke. Musika-jaialdietarako areto bat. Munduko haur behartsu guztiek hartuko nituzke.

9 Fernando Iurtia.
31 urte. Langilea.

Herriko erdigunea oinezkoentzat egokituko nuke. Ordutegi baten bitartez kotxe eta karga-deskarga trafikoa arutuko nuke, ordutegi horretatik kanpo erdigune guztia oinezkoentzat izan dadin. Haurrentzako jolas-toki gehiago jarri eta eguraldi txarra egiten duenerako lekuren bat ere egokitu. Barruti bakoitzean udal-bulego moduko bat martxan jarri, bakoitza bere barrutian eskuratu ahal izateko egun derigorrez Donibanen jaso behar diren hainbat paper; enpadronamenduak, jaiotza-zertifikatuak...

10 Oliver Pérez.
23 urte. Elektrizitate-ikaslea.

Nire ustez, San Mames ekarri beharko litzake. "Puente colgante" bat San Juan eta San Pedro artean, eta azkenik Plazako kiosko hori kendu eta berri bat jarri.

11 Xila Pihlström.
Idazkaria.

Arrantzale gehiago. Herriko presoak. Finlandiako saunak.

12 Mari Luz Etxaniz.
27 urte. Margolaria.

Abusimbeleko tenploa, Diisneyland moduko parke tematiko bat eta irla bat.

br-14

21

KALE-INKESTA

**diz lekukoa eskuz esku txandatu
ondoren iritsiko da *Lingua
Navarrorum*aren karabana Baiona-
ra.**

"Hemen da
korrika 12,
hementxe da bi
urtetik behin
euskararen alde
jende gehien
mugarazten duen
e k i t a l d i a ;
hementxe dugu,
oraingo honetan,
h i z k u n t z e n
elkarbizitza eta
errespetuaren
a l d e k o
euskaldunon
aldarria izan
nahi duen jaia,
euskarara mundu
bat biltzea helburu duen
lasterketa"

Horrela ematen dio hasiera AEK-ko Aizu! aldizkariak Korrikaren inguruan egin duen erreportaje bereziari. Baina, zer da, zehazki, Korrika? Korrika, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) antolatutako ekitaldia da, Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekitaldia. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gaur egun zein euskaltegien eguneroko lana indartze-ko dirua biltzea du helburu, bereziki Nafarroa eta Iparraldeko euskaltegiak indartu daitezzen, ikusirik, gainera, lurralde hauetan jasotzen diren laguntzak urriak direla.

1980an Oñatitik Bilbora Euskal Herria zeharkatu zuen Korrika 1 antolatu zenetik, euskararen alde

antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordutik, 11 Korrika eta 20 urte bete dira, eta aurren ere, 2342 kilometroak betetzen, adin eta mota guztietako milaka pertsonak parte hartuko dute gau eta egun: azkeneko Korrikan, 600.000 pertsona baino gehiago ibili zen korrika, milaka lagun aritzen da auzoz auzo eta herriz herri antolaketa eta prestaketa lanetan, eta kanpainak irauten duen artean ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu ohi da.

Korrika kulturala

Desagertzeko arrisku larrian dauden kultura eta

hizkuntzen ordezkariei lekua egin zaie estreinakoz
Korrika Kulturalaren egitarauan, eta horren adibi-
derik argiena Munduko Musikak izeneko ekitaldi-
sorta dugu. Emanaldi horietan, munduko hain-
bat lekutatik etorriko diren eta folk musika
edo musika etnikoaren esparruan lan egi-
ten duten hainbat talde ikusi ahal izango
dugu, Euskal Herriko beste zenbait talde-
rekin batera. Abagune hau hiru astetan
zehar izango dugu;
Euskal Herri-
k o

kiari ekarpen berritzaile eta arina eskaini nahi izan dio. Horretarako, erronka biziki interesgarria atondu du, Euskal Herriko aktorerik punta-puntakoenak umorez zipriztindutako zenbait bakarrikzeta ezohikoen inguruan bilduz. Oholtza gainean, aurkezpenik behar ez duten aktoreak izango ditugu: Jose Ramon Soroiz, Ane Gabarain, Iñaki Beraetxe...

Aipatutako guztiaz gainera, herri bakoitzean Korrika Kulturalaren barruan hainbat eta hainbat ekitaldi antolatuko dira, Korrika ez baita herri bakoitzetik pasako den egunera mugatzen.

Gainera, aurtengo 12. Korrika honen berrikuntza garrantzitsuenetako bat ziber-korrikarena dugu. Horrela, ¡Error! Referencia de hipervínculo no válida. web orrialdean dagoen lekuko digitala munduan zehar ibiliko da dantzan: egurrezko lekukoak baino baietz kilometro gehiago egin ziber-lekukoak!

Omenduak

20 urte hauetan zehar, hamaika omendu izan ditu AEKren jai erraldoi honek. Oraingo aldian, euskal kulturaren berezko alderdi

bati egin nahi izan zaio aipamen berezia, bertso-laritzari hain zuzen ere. Hala, sustraiak albo batera utzi gabe, aro modernoetara egokitzen jakin duen euskaldunon berzeko adierazbide kulturala dugu bertsolariena. Horregatik, Martxoaren 10ean ospatu zen Donostiako Kursaalaren Koldo Izagirrek idatzi

tal-
deei dago-
kionez, Alboka, Kepa Junkera,
Txanbela..., eta kanpoko orde-
kariet dagokionez, berriz, Hijas
del Sol, Galiziako Faltriqueira eta
Berrogueto, Sierra Leonako, Irlan-
dako eta beste hainbat tokitatik
etorritako ordezkariak izango ditugu
martxoan eta apirilean zehar.
estalde, Korrika kulturalak euskal antzer-



eta Eneko Olasagastik zuzendu zuen "Hitzak egin gaitu" ikuskizuna. Bertan, bertsolaritzaren momenturik gogoangarrienak irudikatu ziren, orotara 30 bertsolarik, 4 dantzarik eta 4 aktorek parte hartu zutelarik.

Azken besta, Baionan

Apirilaren 8an, goizeko 11etan emango zaio hasiera Korrika 12ren azken bestari. Bertan sei gunetan agur esango zaio aurtengo Korrikari jai giro ezin hobean, egun osoan zehar eta sei gunetan banatuta egongo den jai areto bihurtuko baita Baiona.

Apirilaren 6an iritsiko da Korrika Pasaia

Apirilaren 6a, ostirala. Arratsaldeko lehendabiziko orduetan iritsiko da Korrika 12a gure herrira. Beraz, hitzordua garrantzitsua herriko euskaltzale guztientzat. Lehenik eta behin Donibenekoek hartuko dute lekukoa lezotarren eskutik. Hori arratsaldeko 14:45ean izango da. Donibaneetik barrena ibilbidea arin-arinka egin eta gero, sanpedrotarren txanda izango da. Ohi bezala, txalupa bidez egi



an antolatutako beste hainbat ekintza izango dira. Azpimarratzekoa, Trintxerpen martxoaren 31n egingo den kontzertua. Betagarri, Sen eta Harlax taldeek izango dute giroa alaitzearen ardura. Hitzordua, Trintxerpeko frontoian gaueko 22:00etan.

go da lekukoaren aldatzea. Hori, arratsaldeko 15:10ean izango dela aurreikusten da. San Pedron, aurtan, haurrek harrera berezia egingo diote Korrika 12.ari, eta han izango dira euskararen aldeko lasterketan doazen heldu eta gurasoei bultzada ematen eta arratsalde berezi horretako giroa ziurtatuz. San Pedrotik Trintxerperako bidea hartuko du Korrikak. Han ere umeei harrera berezia egingo diote lasterketako partaideei. Bidebietatik igaro eta jarraian antxotarren txanda izango da. Hauek 15:30ak aldera hartuko dute lekukoa 'eskalerillas' izenez ezaguna den

tokian. Antxon, haur eta helduak batera ekingo diote herriko ibilbideari.

Baina Korrikaren egunean dena ez da izango korri egitea, ez horixe! San Pedron txokolatada eta haur jolasak izango dira, Korrikak herritik alde egin eta gero. Trintxerpen ere askari eder bat banatuko zaie haurrei, azoka aurrean, ateri badago, eta frontoian eguraldi txarra egiten badu. Arratsaldeko 17:00ak aldera, haur-jolasak izango dira Bóveda aisialdi talderen eskutik. Eta jaiarekin amaitzeko, arratsaldeko 19:00etan, afari-merienda Korrikan parte hatu duten guztientzat. Antxon, haurrentzat merienda banatuko da Gure Zumardian. 16:30etatik aurrera haur-jolasak izango dira. Arratsaldeko 19:00etan Korripoteoa egingo da herriko tabernetan zehar, eta gauean Korrikotea.

Korrika iritsi bitartean, eta giroa alaitzen joateko, Korrika Kulturalaren barne-

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.


Oarso 13, beheak esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB: <http://www.iturgaiz.com>
E-mail: majestik@iturgaiz.com

Urtebeteko zigorrra Pasaiaiko sei bizilagunentzat

Pasa den martxoaren 22an egin zen Donostiako Entzutegi Penalean Pasaiaiko sei bizilagunen aurkako epaiketa. Agintarien kontrako atentatua eta desordena publikoa leporatzen zitzaie, 1996ko abenduaren 23an udaletxean egindako osoko bilkuran jazotako istiluengatik. Udalbatza hartan, Imanol Iparragirrenen kartzelaratzea salatu zen, eta fiskalaren aburuz, auziperatutakoek "irainak eta mehatxuak" egin zizkioten orduan EAJko zinegotzi zen Juani Garbizuri. Hasiera batean, fiskalak hiru urteko espetxe zigorra eta hamabi asteburuko arrastatzea eskatzen zuen bakoitzarentzat, baina azkenean, fiskalaren eta defentsaren arteko akordioa lortu zen, eta fiskalak bakoitzarentzat urtebeteko zigor-eskaera egin zuen. Akusatuek ez dute espetxera sartu behar, aurrekaririk ez dutelako.

Antxoko Auzo Elkartek, saihebidetaren egitasmoari dagozkion alegazioak aurkeztu ditu

Bederatzi alegazio aurkeztu dizkio Antxoko Auzo Elkartek saihebidetaren proiektuari. Lehenik eta behin, N-1 errepidearen errei bat gutxienez bizilagunentzako berreskuratzea eskatzen dute. Jarraian, Antxo hegoaldera (Luzuriaga aldera) sartu ahal izateko sarbidea aurreikustea eskatzen dute. Izan ere, egungo egitasmoaren arabera, Donostiatic autopistaz datozen bizilagunek Antxora sartu ahal izateko Kaputxinos auzoko biribilguneraino jaitea derrigorrezkoa izango dute. Landarro industria-gunera bideratutako zerbitzu-errepidea inposatu



tu nahi izana salatzen dute hirugarrenik, eta era berean, proposatzen dute proiektuan aurreikusten den errepidearen ordez, berarekiko paralelo doan beste bidea egokitzea (proiektuan azkeneko hau erabilarik gabe uzten da), oinezko zein txirrindularientzat abantailak ekarriko dituelakoan. Bestalde, Antxo Kaputxinos eta Beraun auzoekin bidegorriaren bitartez lotzea proposatzen da. Futbol zelaiaren desagerpena dela eta, alternatiba baten beharra azpimarratzen dute. Kaputxinos auzoan doan biribilgunearen tamaina txikitzea ere eskatzen dute, neurri honekin zaratak gutxitzea lortuko delakoan. Pasaia eta Erreterria arteko igarotze-zonaldean argiztapena eta segurtasun-neurriak hartzeko beharraz ere ohartarazten dute, eta azkenik lan hauek ingurugiro zein paisaian izan ditzaketen ondorioak zaintzea aldarrikatzen dute.

Prestakuntza: lana aurkitzeko biderik motzena

"Enplegurako Ikastaroak" lemapean, Erreterria, Oiartzun, Lezo eta Pasaiaiko Udalek sortutako Oarsoaldea E.A. Garapenerako Eskualdeko Agentziak, Martxo eta Apirilean zehar, prestakuntza okupazionalerako zenbait ikastaro hasteko asmoa du, gure eskualdeko langabetu guztiei zuzenduta. Urte honetarako programatuak dauden ikastaroak eraikuntza alorrekoak dira, sektore honetako enpresek zailtasun handiak dituztelako beraien langile beharrak pertsona kualifikatuekin betetzeko garaian. Behar hauek, handiagoak izango dira, gure eskualdean epe

labur eta ertain batean burutzeko asmoa dagoen hirigintza proiektu berriak direla eta, bai ekimen pribatu nahiz publikoen eskutik (Urban Plana, Udal Hirigintza

Obrak, Etxebizitzaren berriztapen obra partikularrak, ...). Ikastaro hauek Enplegurako Institutu Nazionalak (INEM) subentzionatzen ditu FIP (Prestakuntza eta Inserzio Profesionala) Planaren barruan, Europear Gizarte Fondoak kofinantziatzen dituelarik.

Pintura

Iraupena: 600 ordu. Baldintzak: Bereziki emakumeei zuzendua. Ez da inongo titulaziorik eskatzen. Bertigo eta ezintasun fisikorik ez jasatea.

Igeltseritza

Iraupena: 550 ordu. Ez da inongo titulaziorik eskatzen. Bertigo eta ezintasun fisikorik ez jasatea.

Enkofratzailea

Iraupena: 600 ordu. Ez da inongo titulaziorik eskatzen. Bertigo eta ezintasun fisikorik ez jasatea.

Burdinezko estruktura arinen soldadura

Iraupena: 700 ordu. Bereziki emakumeei zuzendua. Ez da inongo titulaziorik eskatzen. Bertigo eta ezintasun fisikorik ez jasatea.

Ikastaro hauek doakoak dira eta asistentzia errezteko badago bidai gastuei aurre egiteko beka bat eskuratzeko aukera beti ere partaidearen ohiko bizilekua ikastaroa burutzen den herrian ez badago.

Informazio gehiago jasotzeko Oarsoaldea E.A.-k Erreterrian, Olibet Auzoa, 6 beheak, dituen bulegoetara zuzendu daitezke edo 943- 34.40.44 telefonora deitu.

Izen ematea INEM-en bulegoan gauzatu beharko da, Erreterriako bulegoan, Maurice Ravel, 14-16 helbidean.

zuk zeuk!

ZINEA

BILLY ELLIOT

Zuz.: Stephen Daldry. Akt.: Jamie Bell, Julie Walters.



Hasi aurretik ohar bat: umorezko filma izan zitekeen, edo negar-eragilea, baina ez da; gizarte-denuntzia hutsa izan zitekeen, baina hori ere ez. Are gehiago baita Stephen Daldry-ren lehen luzemetria gazi-gozo hau.

Billy Elliot, Ingalaterrako Durham konterrian bizi den gaztetxo dugu. Durhan onenak eman dituen meatzariherria da. 1984. urtean meatzariak Thatcherren gobernuaren kontra egindako greba luzeak larriagotu egin du, gainera, une horretako egoera.

Billyren aitak (Gary Lewis) eta anaiak piketeetan parte hartzen duten bitartean, gure protagonistak, kasualitatez, Wilkinson anderearen (Julie Walters aktorea) dantza-eskolako saio bat ikusi du. Liluratuta, dantza boxeoa baino nahiago duela ebatzi eta, ezkutuka, bere grina aske utziko du. Erabaki honek bere familiarean eragin handia izango du. Boxeoa, indarra, gizontasuna nagusi diren munduan, dantzarako grina ez dutelako behar den bezala ulertuko. Hori dela eta, aurreiritzi ugariaren aurka borrokatu beharko du Billyk eta Wilkinson andereak.

Desberdintasunei buruzko filmea da, beraz, Billy Elliot. Goza ezazue, bada, filme txiki honekin, zeinetan dantza edozein sentipenen adierazpide bihurtzen den -ez galdu Billy haserre-tzen deneko sekuentzia-. Zineak errealitateak bezala, noizbehinka oparitzen dizkigu argi-izpi gozo eta gardenak.■



ANE OLKATZ

LIBURUA

'ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION'

Lourdes Oñederra, 1999



Lourdes Oñederrak ekartzen digun istorio honek, Teresa izeneko emakume bat du protagonista, senarraren ondoan emandako hamar urteen ostean, harekin batera Euskal Herritik kanpora joateko erabakia hartzen duena, desasosegu eta monotoniatik ihesi; bertan urtebeteko egonaldia eginez, aspaldidanik sentitzen hasia zen bakardadeari irtenbidea topatzeko esperantza du Teresak. Gauzek, baina, bere horretan segituko dute han ere, eta azkenean, beste bidaia bati ekingo dio, baina bakarrik honakoan.

Teresaren bidaia eta egonaldi fisiko hauek, bere gogo eta kezka psikikoen eszena bihurtzen dira, eta horiek osatzen dute, azken batean, istorioaren muina: emakumearen bakardadea; bakardade horretatik, bizitzan zehar ezagutu dituen gizonek aterako duten esperantza; esperantza galdua...

Tindu grisazkako istorioa, baina, estilo fresko eta arinez harilkatzen du autoreak, pentsamenduen segida, esaldi laburrez -hitz bakarrez, askotan- irudikatuz. Narratzaile orojakile batek, istorioko protagonista desberdinen pentsamenduak, zuka kontatzen dizkio protagonista nagusiari. Bizitzari buruzko hausnarketak gustuko dituen edonorentzat gomendagarri.■



IZASKUN ALDEZABAL

ZINEA

CHOCOLAT

Zuz.: Lasse Hallström. Akt.: Juliette Binoche, Lena Olin, Judi Dench, Johnny Depp.



Txokolatearen erotikaz baino areago, tolerantziaz eta askatasunaz mintzo zaigu Lasse Hallström interesgarria Chocolat atseginean. Mitt liv som hund gordinak Hollywoodeko atek ireki zizkionetik balore aurrerakoiak eta komertzialtasuna ezin hobeto uztartu izan ditu suediarrek bere uztako ekoizpenetan, zinez. Iaz Oscar sariaren jantzi zen The Cider House Rules ederra, esaterako, egilearen engaiamenduen lekuko argia da. Oraingon, baina, txanogorritxorekin antz handia duen gozogile eder baten eta haren alaba ameslariaren ipuina dakarkigu Hallströmek. Saltzen dituen txokolatezko gozo afrodisiakoen bitartez, herrixka kontserbadore bateko bizilagunen bihotzetan iltzatutako hipokrisi soziala, tolerantziarik eza eta arrazismoa erbusteratzen saiatuko da gozogile erakargarria. Polita da filma. Politagia, ordea. Nabardurarik gabeko pertsonaia lauz eta inozotasunaren mugatik hurbil dagoen xalotasunaz blaituta baitago, tamalez, Hallströmen ekoizpen efektista. Pena da, baina Chocolat honek azukre gehiegitxo du txokolate finaren zaporea maite dugun ahozurion aburuz.■



INAKI LAZCANO

APIRILA 2001

Hona hemen apirilerako kultur agenda. Eskaintza zabala duzu eskuragarri hilabate guztian zehar. Gogoratu zure elkarte edo lan-taldeko ekintzek ere leku bat izan dezaketela hemen. Animatu eta bidali informazioa!

Donibanen:

Apirilaren 28an, ilunabarreko 20:00etan eta Bonantzako elizan Ahots Txuriak eta Herostrato abesbatzak.

Trintxerpen:

Illunbe Musika Bandaren kontzertua, Gernika plazan, eguerdiko 13:00ean hilaren 1ean.

ZINEA

San Pedron:

Haurrentzako zinea. Udal aretoan, apirilaren 7an arratsaldeko 17:00etan.

PABELA ZINEKLUBA

Apirilaren 1ean:

'Bofetada' (Aron Benchetrot) film laburra eta 'Al Límite' (Martin Scorsese) filma.

Apirilaren 8an:

'O me quieres o me mato' (Juan Carlos Falcón) filme laburra eta jarraian 'Pantaleón y las visitadoras' (Francisco Lombardi) film luzea.

Apirilaren 15ean:

'Stanley' film laburra eta 'Pompiendo las olas' (Lars Von Trier) film luzea.

Apirilaren 22an:

'El figurante' (Romulo Aguillau) eta 'Buena vista social club' (Win Wenders).

IKASTOLA EGUNA

Apirilaren 1ean. Goizean jaia ikasle eta gurasoentzat eta ondoren bazkaria.

ERAKUSKETAK

Donibanen:

'Ahaggar' izenburupean Saharari buruzko argazki-erakusketa, Victor Hugo Etxean, apirilaren 6tik 29ra bitartean. Argazkien egilea, Iñaki Edroso.

Trintxerpen:

'Pasaia Hiria' V. Argazki Lehiaketaren lanak ikusgai alkateordetzan. Trintxer kulturalak antolatuta, apirilaren 8ra arte.

'Pasaia Hiria' V. Pintura Lehiaketako lanak ikusteko aukera, Trintxer Kulturalaren eskutik, alkateordetzan apirilaren 20tik 30ra bitartean.

MUSIKA

Antxon:

Musika Bandak antolatutako aste musiko-korala herriko Kultur Etxean: apirilaren 3an Trintxer Abesbatza apirilaren 4an, Illunbe Abesbatza apirilaren 5ean, Ondartxo Abesbatza eta, apirilaren 6an, Txistu taldea eta Illunbe okordeoi-orkestra. Kontzertu guztiak ilunabarreko 20:00etan izango dira.

KULTUR ERROTA

Apirilean abiatuko da **Arnasa Euskara Elkartearen** eskutik **Kultur Errota** egitasmoa. Lehendabiziko ikuskizuna **Xabier Amurizaren** eskutik etorriko zaigu apirilaren 7an, Antxoko Kultur Etxean eta arratsaldeko 19:00etan.

'Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina'



izenburupean, Amurizak, Lazkao Txikiren bat-bateko hainbat bertso hautatu kantatuko ditu, kontestu bakoitzaren azalpen labur batekin.



Apirilaren 28an, **Amaia Zubiria**ren kantekin gozatzeko parada. Arnasa Euskara Elkarteak antolatuta, Antxoko Kultur Etxean eta arratsaldeko 19:00etan.